



TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO UDALEKO TRAFIKO KOORDINATZAILE PLAZA, ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUA.

BIGARREN PROBA – OPOSIZIO FASEA:

EUSKARA-PROBA

ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

Probaren data: **uztailak 19, ostirala, goizeko 08:00etan.**

Tokia: Tolosako Udala, Plaza Zaharra 6 A., 4. solairuko bilera gelan.

Tolosako Udaleko ofizialorde plaza zerbitzu-eginkizunetan betetzeko hautaketa-prozesuan, deialdiko oinarrietan xedatutakoaren arabera, bigarren proba (nahitaezkoa eta baztertzaila), euskararen ezagutza egiaztatzea izango da. Hautagaiak euskarako 3. hizkuntz eskakizuna dutela egiaztatu beharko dute probaren bidez. Honako zati hauek osatzen dute proba:

- Idatzizko ariketa/k.
- Ahozko ariketa/k.

Idatzizko ariketan, bi idazlan egin beharko ditu hautagaiak, bakoitza 100 hitzekoa. Gutxieneko hitz kopuru hori egin beharko du bi idazlanetan, eta eskatutako komunikazio-ekintza bete beharko du.

08:00etan hasiko da, eta 90 minutuko iraupena izango du.

Ondoren, 15 minutuko atsedena egingo da.

Bigarren zatian, ahozko ariketa egingo da, eta 09:45ean hasiko da. Aurrez prestatutako gai bati buruzko ekintza komunikatibo bat egin beharko da. Enuntziatuak argi azalduko ditu ekintza komunikatiboaren zer-nolakoak eta C1 gaitasun-mailari dagokion egoera eta testuinguru jakin bat. Egiteko hau prestatzeko, testu-aipamenak, elementu grafikoak edo irudiak eman dakizkioke azterketariari, eta 20 minutu izango ditu prestatzeko. Ondoren, gaiari buruzko 5 minutuko azalpena eman beharko du aztertzailen aurrean.

Mintzamen-proba hau egiteko, prestaketa-denboran berak landutako eskemaz balia daiteke azterketaria, baina ez da onartuko aldeztatik prestatutako testurik irakurtzea.

Saio bakoitzean bi aztertzailak hartuko dute parte. Probak aurkeztu ondoren, egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez bada, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko zaio zalantzak argitzeko. Saioa grabatu egingo da.



TOLOSAKO
UDALA

Proba osoaren emaitza GAI edo EZ GAI izango da. GAI emaitza lortzeko, ariketa guztiak gainditu behar dira.

- **Proba zuzentzeko irizpideak**

C1 gaitasun-maila kontuan hartuta, **idazlanetarako** hauek izango dira zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen arabera lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa erabili du.

C1 gaitasun-maila kontuan hartuta, **ahozkorako** hauek izango dira zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Azterketariak testuinguruarekiko eta testuarekiko egoki jardun du. Ez du arazorik kultura orokorreko zeinahi gairen inguruan erregistro mota aukeratu eta erabiltzeko. Azalpen eta argudioetan, nori eta zertarako zuzentzen zaion kontuan hartuz, informazioa egoki adierazten du.

Koherentzia eta kohesioa

Azterketariaren azalpenean diskurtsoa koherentea, argia eta ongi lotua den baloratuko da. Gaiari buruzko azalpenak, iritziak eta ideiak argi, zehatz, ondo antolatuta eta egoki lotuta eman ditu. Zerbait kontatu edo deskribatzerakoan, azaldu eta argudiatzerakoan diskurtsoa ondo antolatuta eta josia izango da, eta bere jarduna koherentea izango da.

ESKUB4c24561-acce-458a-be68-be40fa5ec44b



TOLOSAKO
UDALA

Jariorotasuna

Bat-batekotasunez eta natural hitz egin du. Hitz egitean ziurtasuna erakutsi du, gutxitan errepikatu ditu hitzak edo berrantolatu esaldiak. Etenak behar bezala egin ditu, esaldien barruko zein esaldien arteko egiturak errespetatuta.

Aberastasuna

Lexiko orokorra, hau da, dibulgazio-gaiei dagokiena (eguneroko prentsa...) zuzen eta egoki erabili du. Egitura konplexuak erabili ditu. Ideiak egoki, zehatz adierazi ditu, nahiz eta gaiaren edo egoeraren berezitasunagatik zailtasunen bat izan hitz edo egitura aproposa aukeratzeko. Baliabide ugari erakutsi du eta hizkera landua da.

Zuzentasuna

Akats gutxi egin ditu; oro har, egin orduko zuzendu ditu. Ahoskera eta intonazioa egokiak eta naturalak izan dira. Ez du behin eta berriro errepikatzen den akatsik egin. Agertutako akatsak bakanak izan dira eta ez dute inondik inora ulergarritasuna oztopatu.

Tolosan, 2024ko uztailaren 17an

Epaimahaiko idazkaria



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024PDBS0002-2. PROBA EUSKARA IRIZPIDEAK/CRITERIOS 2. PRUEBA EUSKERA ()